

# Lau langile eta 50 boluntario

Komunikazioa izan daiteke webgunea kudeatzea, ikuskizuna prestatzea eskualdeko hainbat artistarekin, irratian saltseatzea, eskualdeko memoria historikoa batzea... Horietara guztietara dago zabalik Aiaraldea Komunikazio Leihoa elkarte. Dena euskaraz. Modu naturalean euskaraz hasitako harremanek euskaraz jarraitzen dute-eta.

| AMAIA UGALDE BEGOÑA |

AIARALDEA.COM ATARIA da elkartearen tresna indartsuena, eta berau sortzea izan zen elkartearen lehengo pausoetako bat. Gerora, internet bidezko irratia jarri zuten martxan, eta urrian aldizkaria kalera-tzen hasi dira, hamabostekaria. Komunikabideetatik harago doan proiektua da baina Aiaraldea Komunikazio Leihoa. Komunikazioa bere zentzu zabalenean hartuta egiten dute lan, 50 bat boluntarioz osatutako sarean. Arabako kuadrilletako bat da Aiaraldea eta ondoko udalerriak biltzen ditu: Amurrio, Artziniega, Aiara, Laudio eta Okondo.

Idea duela lau urte jaio zen. Irati Mendiguren elkarteko kideak azaldu duenez, webgunea egitea zen hasierako asmoa: “Plaza eman nahi genien elkartearen ekintzei eta eskualdeko gaurkotasunari”. Proiekturako jende bila hasi ziren: Webgunea sortzeko “igeltseroak”, albisteak idazteko prest zeuden herritarrak, argazkizaleak, bideo afizionatuak... Webgunea aitzakia, hainbat motibazio sortu ziren gazteak euskararen normalizazioan murgiltzeko. Irratia jaio zen geroago, eta han gazte kuadrillek eta herritar musikazaleek parte hartzeko modua ikusi zuten. Gaur egun, hogeitabat lagun dabilza irratiaren programa egiten.

Udazkeneko multimedia tailerrak antolatzen dituzte, elkarteko kideen formaziorako, eta herritarrentzako ere irekiak. Horrez gainera, kultura ikuskizunak ere antolatu ditu elkar-



ELKARTEAK UTZIA

Arabako Aiaraldea kuadrillan irratia, hamabostekaria, webgunea eta hainbat motatako ikuskizunak prestatzeko 50etik gora lagun biltzen dira.

teak, ikastetxeekin multimedia rallyak egiten dira... Ekimen horiek aurrera eramateko sare zabala dute elkartearen. “Norberak dakienetik egiten du lan, bere denbora eskainiz. Hor dago nire ustez elkartearen xarma eta honek aurrera egitearen arrazoia”.

Proiektua haziz joan da, eta duela bi urte, boluntarioen lanaz gainera, dedikazio gehien behar zuten lanetarako lanpostuak sortzen hasi ziren. Gaur egun lau langile dauzka elkarteak. Euretako bat, boluntarioen arteko koordinazioaz eta finantzaketaz arduratzen da. Erredakzioan bi langile daude, bata webgunearen arduraduna eta bestea aldizkariarena. Laugarren pertsona

bat arlo teknikoaz eta komertzial lanez arduratzen da.

## Paperera salto

Urrian kaleratu zuten *Aiaraldea* hamabostekariaren lehen zenbakia. Doakoa da. “Momentu honetan eskualdean ez da banatzen doako egunkaririk, gaztelaniaz ere ez. Eredu hori euskarak hartzea itzela izan da”. Irati Mendigurenen hitzetan, harrera ona egin diote herritarrek. Okindegietan, kiosketan, ikastetxeetan, tabernetan, euskaltegietan, autobus geltokietan... banatzen dute: “Komertzio batzuek ale gehiago uztea ere eskatu dute”. Oraingoz 10.000 ale banatzen dituzte, eta tirada egokia

ote den ikusten dabilta lehen zenbakietan.

Arinago, aiaraldea.com-ekin, batez ere gazteengana heltzen zen elkarte. Papererako saltoarekin beste adin bateko publikoarengana heltzen dabilta. Gainera, Mendigurenen ustez, euskarazko atari batera bere kabuz sekula helduko ez zen jendearengana iritsi dira: “Piztu diogu jakin-mina agian orain arte euskarari aparteko garrantzirik ematen ez zion jendearene, eta horregatik bakarrik, merezi du”. Etxean aldizkaria jaso eta seme-alabei galdezka imajinatzen ditu Mendigurenek hainbat herritar: Zer jartzen du hemen? Pertsona hori ezagutzen dut, baina ez dakit zer dioen. “Aldizkariaren kontuarekin uste dut apurka-apurka hizkuntzen arteko muga batzuk apurtuko direla”.

### Euskara erakargarri

Eskualdeko memoria historikoa batzen ere badabilta elkarte kideak. Aurten 1983ko Laudioko uholdeen urteurrena dela eta, dokumentala prestatu dute. Emanaldi egunean jendeak galdetzen omen zuen; “zer da, euskaraz bakarrik? Ze pena!” Apurka-apurka kalitatean hobetu eta produktu gehiago ekoiztu gura ditu elkarteak: “Erakutsi nahi diogu jendeari gauza erakargarriak egin daitezkeela euskaraz; euskaraz bizitzea erakargarria izan daitekeela, azken finean”.

Aiaraldea hiru herritarretik bat da gai euskaraz berba egiteko, eta erabilera nahiko baxua da. Ekintza eta produktu erakargarriekin erabilera horretan eragitea da elkartearen

## Euskararen Leihoak ikuskizuna

Mikel Laboa hil eta gutxira, elkarreko kide batzuek Laboaren inguruan ikuskizun bat antolatzekeo ideia izan zuten. *Lili bana Mikelen-tzat* deitu zioten ikuskizunari. Amurrioko antzokian, eskualdeko musikari eta artistek parte hartu zuten: “Xumea izan zen, baina oso polita. Ikusi genuen gai ginela horrelako espresibideak erabilia, eta euskaraz, jendea erakartzeko”.

Hurrengo urtean horrelako zerbait errepikatu behar zela eta sortu zuten Euskararen Leihoak ekimena. Aiaraalde osoko 60 pertsona inguruk parte hartu zuten ikuskizunean. Helburua euskara sustatzea eta elkarrekin euskaraz lan egitea izan ziren. Han elkartu ziren flamenkoa, folk musika,

rapa... “Planteatu genuen euskararen leihoak horiek guztiak ere bazirela eskualdean bertan”.

Elkar ezagutzeko aukera ematen du Euskararen Leihoak ekimenak. Mendigurenek berak aitortu du harritu egin zela sortzaileen zerrenda ikusterakoan: “Ez nekien hainbeste gauza genituenik eskualdean!” Hantxe ziren askotariko herritarak. Batzuk musikari profesionalak, beste batzuk sekula publiko aurrean emanaldirik eman bakoak. Ikasurte honetan ere egingo dute jaialdia, oraindik gauzak lotzen hasi ez badira ere. Ikuskizun horri esker konturatu dira, elkartera beste modu batera hurbiltzen ez den jende asko hurreratzen dela.

helburua. Elkarteak euskaraz funtzionatzen du modu naturalean: “Lehendik elkarrekin euskaraz aritzen ginenez, errazagoa da euskaraz jarraitzea harreman horrek”.

### Herri kazetaritza

Aiaraldea orain arte ez da eskualde mailako komunikabiderik egon: “Bi irati daude, ez gaituztenak asetzen: Radio Llodio eta Radio Ayala”. Erdarazko medioak biak, gehienbat informazio instituzionala lantzen dute Mendigurenen iritziz. “Herri kazetaritza deitu izan diogu gure proiektuari”, dio. “Ez gara kazetari profesionalak eta kalitatean asko daukagu oraindik hobetzeko, baina komunikazioan funtsezkoa den

beste zerbait daukagu: herritarreko gertutasuna”.

Orain, erronka, zalantza barik, hamabostekaria da: “Askok esan digute, aldizkaria dohainik, garai hauetan, krisiagaz?”. Badituzte dirulaguntzak, Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak emandakoak. Duela gutxi hitzarmenak lortu dituzte eskualdeko udalekin. Bazkideak ere badituzte, eta aldizkaria sortzearekin batera, publizitatea eskaintzen hasi dira. Irati Mendigurenen berbetan, gogoia eta inplikazioa baldin badaude aurrera egingo du proiektuak: “Pilo bat sinesten dugu honetan, eta hori da funtzionarazten duena”. ■



UDALERRI  
EUSKALDUNEN  
MANKOMUNITATEA

euskaraz  
gara

UEMA Aulesti Tel.: 946 279 195  
UEMA Oiartzun Tel.: 943 260 372  
UEMA Azpeitia Tel.: 943 816 699

[www.uema.org](http://www.uema.org)

